

# GAUEKO HARRERA-ZERBITZUA, IRAUPEN LABURREKOA

Garrantzitsua

**Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.**

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

**Gizarte bazterketa egoeran dagoen pertsona > Aldi baterako edo egonaldi luzeko ostatu zerbitzua**

Fitxa osoa kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio laburtua.](#)

## Zertan datza zerbitzu hau?

Laguntza-intentsitate baxuko gaueko baliabidea, bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen, bereziki etxerik gabeko pertsonen, gaua pasatzeko baliabidea eskaintzen diena ([1.8 fitxa](#)). Gaua igarotzeaz gain, baliabide horiek honako hauek eskaintzen dituzte:

- otorduak (afaria eta/edo gosaria)
- higiepe pertsonala,
- garbitegia eta larrialdietarako oinarritzko arropa,
- Informazioa eta orientazioa,
- beharrak baloratzea,
- esku-hartze psikosoziala (entzute aktiboa eta emozioei eustea).

Egonaldia laburra da, gehienez astebeteko epea ezartzen da, eta, beharrezkoa izanez gero, luzatu ahal izango da, harik eta baztertzeari baloratu arte. Urteko gau guztietan funtzionatzen dute, eta urteko aldi jakin batzuetan indartu daitezke, eskariaren igoerari erantzuteko.

## Nork jaso dezake zerbitzu hori?

18 urte edo gehiago dituzten pertsonak, **bazterketa egoeran daudenak eta gaua pasatzeko baliabideren bat behar dutenak**. Premia bereziak dituztenak izan ezik (jokabide-nahasmenduak, ospitaleko altaren osteko susperraldia edo abstinentsia-sindromea, teknikariek baloratuta). Horien arreta Gizarteratze Premiei Erantzuteko **Gaueko Harrera Zentroan** ([ikus fitxa](#)) edo bazterketa- eta marjinazio-egoeran dauden pertsonentzako **Egoitza-Zentroan** ([ikus fitxa](#)) ematen da.

## Zein baldintza zehatz bete behar dira zerbitzua eskatzeko?

- 18 urte edo gehiago izatea.
- Gizarte-bazterkeriagatik intentsitate txikiko laguntza behar izatea.
- Zentroko langileek norberaren higieneari eta zentroaren erabilerari buruz emandako jarraibideak betetzeko konpromisoa hartzea.
- Preskripzio teknikoa baino ez dute eskatzen, eta zuzeneko sarbideko zerbitzutzat hartzen dira, hau da, oinarritzko gizarte-zerbitzutik aurretik pasatu gabe sar daiteke zerbitzura.

## Zenbat balio du zerbitzuak?

Doako zerbitzua.

## Nori dagokio zerbitzu hori ematea?

Zerbitzua ematea **Udalen ardura** da.

## Non eska dezaket zerbitzua?

**Zuzeneko sarbideko** zerbitzutzat hartzen dira, beraz, Gizarte Zerbitzuetatik aldeztu aurretik pasatu beharrik izan gabe sar daiteke. Edozein kasutan, zure auzo, udalerri edo eskualdeko **Oinarritzko Gizarte Zerbitzura** jo dezakezu.

Zerbitzu honetan interesatuta bazaude eta gehiago jakin nahi baduzu, Gizarte Zerbitzuetan lan egiten duten pertsonekin hitz egin dezakezu. Nola funtzionatzen duen eta zerbitzu hori nola balia dezakezun azalduko dizute. Esaiguzu zure udalerria eta harremanetarako lekuak eta datuak adieraziko dizkizugu.

## Zer arauk ezartzen du zerbitzu hori?

Zorroaren jatorrizko fitxarako sarbidea

[Fitxa laburrera itzuli](#)